



**“EUSKO JAURLARITZA ETA OSAKIDETZAKO LANGILEEN
ELKARTASUN FONDOA” zer0,7.
GARAPENERAKO LANKIDETZA PROIEKTUAK DIRUZ LAGUNTZEKO APARTEKO
DEIALDIA**

2025ko urriaren 1tik 24ra

1. HELBURUA

Deialdi honen helburua da lan solidarioa egiteagatik ezagunak diren Gobernu Kanpoko Erakundeei (GKE) diru-laguntzak ematea, Nazio Batuen Erakundearen (NBE) Giza Garapeneko Indizearen (GGI) arabera Afrikako 15 herrialde pobreenetan edo Amerikako 8 herrialde pobreenetan garatzen diren proiektuak gauzatzeko.

2. ESKATZAILEAK.

Diru-laguntzak eskuratu ahal izateko, honako **baldintza** hauek bete behar dituzte GKEek:

- Eratuta egotea eta dagokion errolda ofizialean legearen arabera izena emanda, **deialdiaren data baino urte bete lehenagotik** gutxienez.

- Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistroan inskribatuta egotea edo **Euskal Autonomia Erkidegoan errotuta dagoela egiaztatzea**. Egiaztatze hau egin ahal izango da azken urteetan Euskadin egindako jardueren zerrendaren bidez (Euskal Autonomia Erkidegoko bazkideen parte-hartzea zehaztuko da jardueretan) edo/eta GKEaren iritziz errotzea frogatutzat uzte duen beste edozein modutan.

- Irabazi-asmorik gabekoa izatea, eta besteen onerako lanean aritzea.

- Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) jardutea eta egoitza edo ordezkaritza bertan izatea.

3. PROIEKTUEN BALDINTZAK

Diru laguntzen zenbatekoak proiektu motaren arabera izango dira eta honako zenbateko hauek izango dituzte:

3.1. Sentsibilizazio eta sentsibilizazioari lotutako prestakuntza oinarri duten proiektuak, gehienez 15.000 €.

Honako helburu hauek lortzera bideratutako ekintzak hartzen dira sentsibilizazio-proiektutzat:

- 1) Gizarte-problematika bat ikusaraztea. Batzuetan, desberdintasun sozialak ez dira ikusten edo ez dute behar besteko garrantzi sozialik pertsona gehienentzat; horregatik, GKEek etengabe komunikatu behar dute beren komunikazio-kanal guztietan eta beren bitarteko propioetan.
- 2) Problematika hori bere eginkizunarekin eta ikuspegi instituzionalarekin bat datorren ikuspegitik azter dadin saiatzeari. Ziur aski, arazo sozial baten inguruan dagoen irudikapena komunikabideek gai hori nola lantzen dutenaren arabera dago. Gizarte-erakundeek bestelako begirada bat eman behar dute, gaian adituak diren aldetik.
- 3) Herritarrengan erreakzioa eragitea. Pertsonen gizarte-problematika baten existentzia ezagutzen dutenean, sentimendu-motaren bat sentitu behar dute: bidegabekeria, amorrua, frustrazioa, etab. Pertsona askok axolagabekeria sentituko badute ere, erreakzioen bat eragin behar dugu kausarekiko aurrejoera berezia edo justizia sozialarekiko sentsibilitatea duen biztanleriaren zatiarekin.
- 4) Erreakzio hori ekintza batean gauzatu dadin lortzea. Oso garrantzitsua da sentsibilizazio-kanpainak ekintzarako deiekin lotzea.

Lau fase horiek gertatzea lortzen ez badu, zalantzan jar dezakegu GKEen sentsibilizazio-kanpainen eraginkortasuna. Beraz, proiektu mota honetan deskribatutako helburu bakoitzean egin beharreko ekintzak eta zereginak deskribatu beharko dira.

3.2. Gainerako proiektuak, gehienez 50.000 €. Proiektu mota hauetan sartzen dira, besteak beste:

- 1) Azpiegiturarako proiektu humanitarioak: Proiektu horiek eskualdeei laguntzen diete eraikuntzako materialak edo altzariak emanez, azpiegitura sozial eta komunitarioko proiektuak egin ditzaten, hala nola eskolak, ospitaleak, etxebizitzak, eta abar.
- 2) Elikadurarako proiektu humanitarioak: gizakiek elikagai osasuntsuetarako, edateko uretarako eta nutrizio-arretarako sarbide handiagoa izateko ekintzak, bereziki haurrentzat.
- 3) Hondamendi naturaletarako proiektu humanitarioak: proiektu horiek berehalako erantzuna eskaintzen dute, larrialdikoa, eta errehabilitaziokoa, hondamendi naturalen kasuan.

- 4) Pertsonen osasuna hobetzeko proiektu humanitarioak.
- 5) Proiektu humanitarioak, adingabeen eta helduen hezkuntzarako, analfabetismoari aurre egiteko edo pertsonen etorkizunean lan profesionala egiteko aukera emango dien hezkuntza emateko.
- 6) Ekoizpen- eta merkataritza-jarduerak eta kooperatibak abian jartzea.
- 7) Ageriko emaitzak edota emaitza ukigarriak dituzten ekintza zehatzak dakartzaten beste batzuk.

Proiektuen izaera zer0,7ko Zuzendaritza Batzordeak baloratuko du.

Eskatutako diru-laguntzarekin gauzatuko diren proiektuek honako ezaugarri hauek izango dituzte.

a. Gune hauetariko batean garatuko dira, aipaturiko baldintzetan:

- NBERen GGIaren arabera Afrikako 15 herrialde pobreenetariko batean: **Somalia, Sudán del Sur, República Centroafricana, Níger, Chad, Malí, Burundi, Burkina Faso, Sierra Leona, Mozambique, Guinea, República Democrática del Congo, Guinea-Bisáu, Liberia, Madagascar.**
- NBERen GGIren arabera Amerikako 8 herrialde pobreenetariko batean: **Haití, Honduras, Guatemala, Nicaragua, El Salvador, Surinam, Bolivia, Venezuela.**

GKE bakoitzak bi proiektu aurkeztu ahal izango ditu, gehienez ere, deialdi honetara, baina kontinente ezberdinetan garatzekoak badira.

- b. Egitasmoa gauzatzen **hasteko epea 2025ko azaroaren 15etik** diru-laguntza esleitu eta **bi hilabetera artekoa** izango da, eta **hamabi hilabete** iraungo ditu gehienez ere.
- c. Zer0,7ri eskatutakoaz gain, bestelako finantzaketa ere izango dute (GKErena berarena, proiektua gauzatuko duen erakundearena, onura jasoko duen populazioarena eta abar). Izan ere, gainerako finantzaketa horrek, gutxienez, proiektuaren **aurrekontuaren %10** hartuko du bere gain.
- d. Zehatz eta argi azalduko dituzte aurreikusten diren helburuak, emaitzak, ekintzak eta beharrezko baliabideak.

- e. Egitasmoen aurreikusitako helburuek, aurrera eraman beharreko ekintzak eta erabilitako baliabideak arrazoizko lotura izango dute.
- f. Giza-eskubideen begirunea erakutsiko dute, eta onuradun izango den populazioaren eta bertako erakundearen parte hartzea sustatuko dute.
- g. Ingurumena errespetatuko dute, bai helburuak ezartzerakoan eta bai proiektuak gauzatzeko behar diren ekintzak eta baliabideak zehazterakoan.
- h. Egitasmoak gauzatzean ez da arraza, kolorea, sexua, hizkuntza edo erlijioa dela-eta bereizketarik egingo; ezta ere iritzi politiko edo bestelakoak, jatorri nazionala edo soziala, maila ekonomikoa, jaiotza edota bestelako egoerak direla-eta. Zer0,7 elkarteak ez ditu diruz lagunduko neurrigabeko aldeak dituzten lan-mailen ordainsari, soldata edo eskupekoak.
- i. Egitasmoaren onura jasoko duen populazioaren parte hartzea bultzatuko dute.
- j. Egitasmoak iraunkorrak izango dira, aurreikusitako jarduerak burutu ostean ere beren eragina egonkor mantentzen duten horietarikoak.

Zuzendaritza batzordeak diruz lagundutako proiektuen jarraipena egingo du eta, bukatu ostean, helburuen betetze maila eta GARAPEN JASANGARRIAREN HELBURUAK lortzeko baldintzekin bat datorren ala ez aztertuko du (NBEren 2030 Agenda: genero berdintasuna, hezkuntza inklusiboa, energia jasangarria, ura eta klimaren iraunkortasuna, gosearen desagertzea, ingurumenarekiko begirunea, ea.). Era berean, deialdiaren edozein fasetan adituen laguntza eskatu ahal izango du proiektuaren bideragarritasuna aztertzeko.

Zuzendaritza batzordeak lankidetzarako nazioarteko jarraibide hauek aintzat hartuko ditu proiektua osorik edo erdikizka onartzen den edo, hala baderitzo, baztertzen den erabakitzeke. Proiektua baztertzea edo osorik ez onartzea erabaki aurretik GKEari entzuna izateko aukera emango zaio.

4. ESKABIDEAK AURKEZTU.

Aurkeztu beharreko agiriak (deialdi honen 5. Atala) eta proiektuaren formulazioa honela aurkeztuko dira:

- Kopia bat paperean Elkartearen egoitzan aurkeztuko da; Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Nagusian (Lakua II, Donostia-San Sebastián kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).
- Kopia bat posta elektronikoz bidaliko da hauetariko helbide elektroniko batera: a-salterain@lanbide.eus (Ana Salterain, tel.: 944985732).
asociacionzer07@yahoo.es

GARRANTZITSUA: **ez dira ZUZENEAN zerbitzuan aurkeztutako eskabideak onartuko.** Izan ere, jende aurreko zerbitzu hori Eusko Jaurlaritzarena da eta Zer0,7 elkarteak ez du baimenik horretaz baliatzeko.

Eskaerak aurkezteko azken eguna **2025ko azaroaren 24, ostirala**, izango da, bai paperean bidaltzen diren eskabideentzat, bai posta elektronikoz bidaltzen direnentzat.

5. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Honako agiri hauek aurkeztuko dira:

- 1. eranskina eta bertan adierazten diren agiriak.
- 2. eranskina (proiektuaren laburpen-orria, DIN A-4 formatuko orrialde bat) **word formatuan**.

Egitasmoaren laburpen-orriak (2. eranskina) jasotzen du elkarteak bazkideei bidaltzen dien informazioa eta, beraz, **dokumentuari ezin zaio formatua aldatu**. Eranskin honek DIN-A4 tamainako orrialde bat hartuko du word formatuan, ez gehiago, eta ez zaio informazio gehigarrikerik erantsiko aparteko orrietan.

- 3. eranskina: "Proiektuaren edukia jasotzeko inprimakia" izenekoa. Proiektuaren formulazioa eranskin honetan jasotako atalei egokitu zaio.

Aurrekontuak eta txostenak, bai hasierakoak eta bai bukaerak, gazteleraz aurkeztuko dira eta, GKEak hala nahi badu, baita euskaraz ere.

6. DEIALDIA EBATZI ETA DIRU-LAGUNTZA ORDAINDU.

Elkarteko bazkideek aukeratuko dituzte, bozketaren bitartez, diru-laguntza jasoko duten proiektuak.

Diruz lagunduko diren proiektuak aukeratu ondoren diru soberakina geratzen bada, Zuzendaritza Batzordeak erabakiko du zein proiekturi esleitzen zaion, eta aktan jasota utziko ditu bai erabakia bera bai erabaki hori hartzeko aintzat hartu dituen irizpideak.

Egitasmoak aurkezteko epea bukatu eta hiru hilabetera, beranduenez, egingo da esleipena. Aurkeztu duen proiektua onartua edo baztertua izan den idatziz jakinaraziko zaio GKEari.

Diru-laguntza bi zatitan ordainduko da: %40a proiektua esleitzean eta %60a proiektuaren hasiera justifikatzen duenean.

7. ONARTUKO DIREN MONETAREN TRUKE-TASAK

Moneten truke-tasen balorazioa era honetan egingo da:

a).- Egitasmoen aurkezpenerako onartuko diren truke-tasak 2025ko ekainaren 2ko itxierakoak izango dira (<http://www.oanda.com> web gunean begiratu daitezke truke-tasak).

b).- Egitasmoak justifikatzeko kontuan hartuko diren truke-tasak tokian tokiko bazkide-erakundeari dirua bidaltzen zaion eguneko itxierakoak izango dira (<http://www.oanda.com> web gunean begiratu daitezke truke-tasak).

8. DIRU-LAGUNTZA JASOTZEN DUTEN ERAKUNDEEK HARTZEN DITUZTEN KONPROMISOAK.

Diru-laguntza jasoko duten erakundeek honako betebeharrak dituzte:

a) Idatziz hartuko dute proiektua gauzatzeko konpromisoa; baita, proiektua gauzatu ezean, diru-laguntza itzultzekoa ere.

b) Bestelako diru-iturrietatik jasoko duten diru kopurua adieraziko dute (GKEak berak, bestelako erakundeek edo proiektuaren onura jasoko duten herritarrek jarritakoa). 3.2.c azpi-atalean aipatutako baldintzari jarraiki diru-iturri hori gutxienez aurrekontuaren %10a izango da.

c) Laguntza eskatu zaielako edo eskatzeko asmoa dagoelako, deialdira aurkeztutako ekintzak finantzatzeko **beste erakunde batzuetatik diru-laguntzarik jaso duten edo gerora jasoko duten** adieraziko dute. Halaber, proiektu bera bi aldiz finantzatua izan ez dadin neurriak hartzera konprometituko dira.

d) Proiektua hasi eta **seigarren hilabetea txosten bat aurkeztuko du**. Txosten horretan honako hau jasoko da:

- Proiektuan zenbat egin duen aurrera, helburuak betetzea eragozten duen arazorik dagoen eta, horrela izanik, zein neurri hartu den eragozpen hori gainditzeko, Era berean, txosten honen laburpen txiki bat eta argazkiak bidaliko ditu gure Web gunean argitaratzeko.

e) Proiektua gauzatu ondorengo urtean **bukaerako txosten bat bidaliko du**, honakoak adieraziz:

- Proiektuan aurreikusitako helburuen betetze maila eta lorpenak, biztanleria onuradunarengan izan duen eragina, eta proiektuaren ekarpenak baloratzeko garrantzitsua izan daitekeen bestelako informazioa.
- Sentsibilizazio eta prestakuntza proiektuetan egindako jarduerak deskribatu, honako hauek barne: herrien izena, bertaratuen kopurua, herri horietan egindako ekintzen hasiera- eta amaiera-datak, eta lanak egin dituzten langileen identifikazio-datuak.
- Hala gertatu bada, proiektuan izan dituen desbideraketak eta horien justifikazioa. Desbideratze horiek ez justifikatzeak berekin ekar lezake, Zuzendaritza Batzordeak aldeztu aurretik hala erabakita, GKE onuraduna hurrengo bi deialdietatik kanpo uztea.
- Helburuen arabera gastuen justifikazio zehatua. Justifikazio hori faturen bidez egingo da beti eta bestelako agiriak ere gehitu ahal izango dira. Aurkezten diren fakturak jatorrizkoak ez badira, agiri bat aurkeztuko da fakturetan azaltzen diren gastuak gure Elkarteari baino ez zaizkiola esleitu egiaztatuz, eta gainerako diru emaileei esleitutako faturen zerrenda bat.
- Aurrera begirako proiektuaren nondik norakoak (jarraipena duen, diru-laguntza berrien zain dagoen, edo bukatu den proiektua den). Izan ere, proiektu motaren arabera, datu hauek zehaztuko dira:

- e1 – Eraikuntza edota azpiegitura, ura edota saneamendu proiektuetan: azpiegituraren gerorakoa adieraziko da (mantenimendua nork-nola egingo den, zabaltzeko asmorik dagoen....).
 - e2 – Proiektu komertziala, ekoizpenezkoak, kooperatibak...: proiektuaren aurrera begirako bideragarritasuna eta jasagarritasuna azalduko da (GKEak edo bertako elkarte edo erakundeek egingo duten).
 - e3 – Sentsibilizazio eta prestakuntza proiektuak: ebaluazioa, biztanleriaren gain izan duen eragina, proiektuaren bideragarritasuna etorkizunean eta bere jarraipena neurtzeko parametroak.
- Elkartearen web gunean jartzeko memoria labur bat, proiektuaren lorpenak, biztanleriarengan izan duen eragina eta proiektua baloratzen lagunduko duen bestela informazioa jasoko duena. Argazkiak ere gehituko dira memoria honetan.

Azken txosten hau garaiz aurkeztu ezin bada, GKEak atzerapenaren berri eman beharko dio Zer0,7ri, arrazoiak azalduz eta atzerapenaren iraupena adieraziz.

f) **Proiektua bukatu eta bi urtera, txosten bat aurkeztuko da proiektuaren jarraipena egiaztatzeko.** Zer0,7k finantzaturako proiektuak funtzionatzen jarraitzen duela eta, hasi zenean proposaturako helburuei dagokienez, eragin behagarria eta iraunkorra izan duela frogatzen duten agiriak aurkeztuko dira.

Agiri horiek, e-1, e-2 eta e-3 ataletan aipaturako proiektu moten arabera izango dira eta proiektua ebaluatzeko formulazioan aipaturako neurgarriak jasoko ditu.

g) Elkarteari lagunduko diote jarduera solidarioak **zabaltzen eta sustatzen**, bazkideei bidaltzeko agiriak eta materiala eskura jarritz, eta bi aldeek artean hitzartzen diren hitzaldi edota sentsibilizazio-ekintzetan parte hartuz. Sentsibilizazio eta zabalkunde lan hau diruz lagundutako proiektuaren ingurukoa izan daiteke edota proiektuak ukitzen duen gunearen ingurukoa.

9. DIRUZ LAGUNDUKO DIREN GASTUAK.

Emandako dirulaguntzek onartutako proiektuari atxiki dakizkion **kostu zuzenak** ordaintzeko erabiliko dira.

Tokian tokiko kontrapartearen bulegoetako edo lokaletako funtzionamendu gastuak (telefonoa, internet, bulego-materiala, konponketak, amortizazioak edota mantenimendua) bereiztuta azalduko dira aurrekontuan eta ez dute proiektuaren kostuaren %10a gaindituko. Proiektuaren zenbait ekintza edo ekintza guztiak bulego edo lokal horietan garatzekoak badira, proiektuaren formulazioan hori adieraziko da eta ez da aintzat hartuko aipatutako %10eko muga hori.

Zer0,7ren Zuzendaritza Batzordeak proiektuaren formulazioan bidezkoa dela iristen badio, Elkartek diruz lagundu ahal izango ditu **diru-laguntzaren %20 gainditzen ez duten otamen edo mokadu** gastuak.

Era berean, erakunde eskatzailearen administrazio-gastuak eta, hala badagokio, erbesteratutako langileenak **kostu ez zuzen** gisa sartu ahal izango dira aurrekontuan.

Deialdi honi dagokionean, atzerriratutako langiletzat hartzen dira proiektua gauzatzen den herrialdera proiektua gauzatu bitarteko une jakin batean lekualdatzen diren GKEko langileak edo boluntarioak, dela proiektua ikuskatzeko edo auditatzeko, dela proiektua inplementatzeak eskatzen duen beste edozein jarduera egiteko.

Kostu ez zuzenek ezingo dute **dirulaguntzaren %5a gainditu**.

10. EGITASMOEN ALDAKETAK

Onartutako projektuan eragin nabarmena izango duen aldaketaren bat egin beharra badago –batez ere, aldaketa horrek proiektuaren egikaritzapena atzeratzea badakar edota azken kostuan gorabeherak sortzen baditu–, dirulaguntza jaso duen erakundeak horren **berri emango** dio Elkarteari, eta honen **onespena jaso** beharko du **aldaketa egin aurretik**.

11. DIRUZ LAGUNDUTAKO EKINTZEN JARRAIPENA.

Egitasmoa gauzatu den tokian bertan jarraipen eta ebaluaziorako **bisita egitea pentsatuko balu** Elkartek, dirulaguntza jaso duen erakundeak bisita erraztuko die bertaratzen direnei, obra edo ekintza ikustea ahalbidetuz eta horien inguruko informazioa eta dokumentazioa eskura jarritz.

1. ERANSKINA

EMAN BEHARREKO DATUAK ETA AGIRIAK

1. GKE-A IDENTIFIKATU

- Izen soziala:
- Araubide juridiko:
- Izena emana duen erregistroa zein den eta zenbakia adierazi:
- Eratze-data:
- Telefonoa:
- Faxe:
- Posta elektronikoa:
- Web gunea:
- EAEko egoitzaren helbidea:
- EAEko arduraduna:
- EAEko bazkide kopurua:
- GKEaren kontu korrontearen zk. (20 digitu):

2. “KONTRAPARTE” DELAKOA IDENTIFIKATU

- Izen soziala:
- Helbidea:
- Telefonoa:
- Faxe:
- Posta elektronikoa:
- Web gunea:
- Bazkide kopurua:
- Harremanetarako arduraduna:
- Bestelako laguntzak herrialdean:

3. GKE-AREN ETA “KONTRAPARTE” DELAKOAREN ARTEKO HARREMANA*:

- Harreman-mota:
- Harremana hasi zen urtea.

ERANSKIN HONEKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

1. GKEaren IFZ txartelaren kopia.
2. GKEaren EAEko arduradunaren NANaren kopia.
3. Azken urtean GKEak aurrera eraman dituen ekintzen txostena.
4. Deialdira aurkeztutako proiektuaren formulazioa, 3. eranskinean jasotako ereduari jarraituz. Formulazioaren helburua honako informazioa jasotzea da:
 - Aurreikusitako helburuak eta horiek betetzeko aurrera eraman beharreko ekintzak.
 - Proiektuaren onura jasoko duten biztanleen gain izango duen eragina.
 - Aurrekontua, partidak bereiztuta.
 - Ezaugarri teknikoak.

Agiri guzti hauek, aurrekontua barne, gaztelaniaz aurkeztuko dira eta, GKE hala nahi badu, baita euskaraz era.

2. ERANSKINA
PROIEKTUAREN LABURPEN-ORRIA
(Bi ale bidali, bat paperean eta bestea posta elektronikoz)

EGITASMOA	Zk. **/2025 (sarrera-hurrenkera)
------------------	--

Eskatzailea (GKE).

Izen soziala:.....

Egitasmoa non gauzatuko da.

Herrialdea:.....

ZEIN ARLOTAN ERAGINGO DU PROIEKTUAK:

.....

HELBURUAK:

.....

.....

Gauzatu beharreko ekintzak:

.....

.....

IRAUPENA (ZENBAT HILABETE):.....

EGITASMOAREN SUSTATZAILEA:

.....

HERRIALDEAREN BERAREN ESKU HARTZEA:

.....

ZEIN GIZARTE-SEKTORE UKITUKO DU PROIEKTUAK:.....

EGITASMOAREN KOSTUA:.....

ONURADUN KOPURUA:

ESKATUTAKO DIRULAGUNTZA:

GASTU EZ ZUZENEN ZEBATEKOA:

BESTELAKO INFORMAZIOA :

.....

.....

3 ERANSKINA

Proiektuaren edukia jasotzeko inprimakia

(Bi ale bidali, bat paperean eta bestea posta elektronikoz)

(Ondoren puntuetan jasotzen den informazioak argi utzi behar du proiektuaren edukia).

1.- Proiektuaren datuak

Laburpena

- a) Proiektuaren deskribapen laburra (10 lerro gehienez)
- b) Finantziakzioa:
 - ✓ Eskatutako diru-laguntza:
 - ✓ Eskatzailea:
 - Borondatezko langileen lanaren balorazioa:
 - Eskatzaileak berak jarritako dirua:
 - Bestelako ekarpenak

2.- Aurrekariak, testuingurua eta justifikazioa

a) Proiektuaren justifikazioa

- 2. Konpondu nahi diren eta proiektuaren planteamendua egitera eraman duten arazoak zeintzuk diren azaldu.
- 3. Beste erakunde batzuen balizko parte-hartzea.
- 4. Horrelakorik balego, egin nahi denarekin zerikusia edo parte-hartzea duten bestelako planen, ekintzen, eragileen, etabarren deskribapena. Aurretiaz edo batera egindako ekintzak izan daitezke, baita osagarriak edo tokian tokiko erakunde publikoen ekimenak. Azaldu nola txertatuko diren proiektuan edota, hala gertatzen bada, eragozpenik sor dezaketen.

b) Aurrekariak

Deskribatu: ekimenaren jatorria eta proiektua identifikatzeko prozesua. Antzeko proiektu edo testuinguruetan izandako esperientzia.

c) Testuingurua

Eremu geografikoa, populazioaren ezaugarri sozialak, jarduera ekonomiko nagusiak, alde horretako erakundeak, testuinguru politikoa eta proiektu non egin nahi den ulertzen lagunduko digun beste edozein informazio.

d) Eragileak, partehartzaileak, interesdunak.... eta beraien gaitasunak.

Proiektuak sortzen dituen jarrerak, konpromisoak, kontrako planteamenduak, sortutako harremanak... Proiektuarekiko eragileen gaitasunak eta aurretiko esperientziak.

3.- Proiektuaren planteamendua eta edukia

A – HELBURUA

Tokian tokiko biztanleengan proiektuak izango duen eragina deskribatu, modu laburrean.

B – AURREIKUSITAKO EMAITZAK, ARRISKUAK....

Proiektuak izango duen emaitza.

C – AURREIKUSITAKO EKINTZAK

Aurreikusitako emaitza lortzeko, aurrera eramango diren ekintza moten laburpena.

D – PROIEKTUAREN BIDERAGARRITASUNA ETA JASANGARRITASUNA

Proiektuaren helburua eraikin edo azpiegitura bat egitea edo ur eta saneamendu sistemak eraikitzea bada, luzera begira azpiegitura horien mantenimendua eta iraupena zein izango den azaldu.

Era berean, proiektuaren helburua ekoizpena, merkataritza edo kooperatiben sorkuntza bada, etorkizunean proiektuaren bideragarritasuna eta jasangarritasuna azaldu,.

Heziketa, prestakuntza edota sensibilizazio proiektuetan populazioan izango duen eragina nola baloratuko den azaldu, baita proiektuak etorkizunera begira izango duen jarraipenaren aurreikuspena ere.

4.- Aurrekontua kapituluka

Proiektuaren kostua kapituluka laburtuta. Kontuan izan, oinarrietan jasotako mugak aintzat hartu behar direla. (Honez gain, aurrekontu zehatza erantsiko da, excel formatuan).

Kapitulua	GUZTIRA
Lurrak eta eraikinak erosi	
Eraikinak eraiki eta birgaitu	
Ekipoak, materialak eta hornikuntzak	
Tokiko langileak	
Atzerriratutako langileak	
Prestakuntza eta trebakuntza	
Ohiko gastuak eta funtzionamenduzkoak (eskatutako diru-laguntzaren %10 gehienez)	
Otorduak eta mokaduak (eskatutako diru-laguntzaren %20 gehienez)	
Kostu ez zuzenak (emandako diru-laguntzaren %5 gehienez)	
Laguntzaren proportzionaltasuna (diru-laguntzaren zenbatekoa / onuradunen kopurua)	
Bestelako gastuak	
GUZTIRAKOA	